

*tzañak* gai ortan egingo dituen jaietarako Euskaltzaindiak bere ordeko Lakonbe jauna aukeratzen du. *Argia* Donostiko asterokoak beste zerbait ideko dabilki. Oni ere zorion sutsuena te egin bear duen jaietarako Intzagarai ordeko izan bedi.

8. «Laziotaren izkera, antziñakoak nola ebaki zuten, gure izkera onek darakusgu». Auxe izan da Eguskitza jaunak irakurri duen lan ederearen gaia. Oraindik ere geiago osatzekotan gelditu da ta osapen ori, garaiz irakurriko dio Euskaltzaindiari.

9. Azkue jaunak bere *Morfología* bigarko lagata, Kanpion jaunak bere lan ederearen *El vascuence y el antiguo egipcio* en irakurpena jaraitu du.

10. Badira oraindik antzin-euskal-liburu zañak aztertu gabeak, adizkerak bilatzeko egin dan sayuan. Utsean daudenak betetzeko Ormaetxea urgazle jauna arazotu liteke.

Beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta oiturazko otoitzez amaitu da batzatzaraldi aun.

---

### Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Otsailaren 29'an.

Aureko batzaraldian aipatu diran euskaltzain berak bildu dira, Azkue maipuru dutela.

1. Kanpion jaunak amaitu du irakurtzez bere lan edera: «El vascuence y el antiguo egipcio».

2. Azkue jaunak ere bere lan edera dan *Morfología* irakurtzen jaraitu du ta euskaltzain batzuen oñak artu.

3. Aita Intzak dasa: Iruñako euskal-apaiz gayak *Erizkizundi-Irukoitzaren* 6 gutun bete dituztela eta zerbaitez ordaindu bear zaiela lan au. Ordañez gutun batzuek urerik bidaliko zaie.

4. Estenaga, Ciudad Real'go apezpiku euskaldunak Euskaleñiko ikastolen alde Madrid'en zerbait egin lezakela-ta oretzaz Euskaltzaindiak itz egin du bañan ez du ezer garbi ta zeatz erabaki.

5. Ezkutitz asko irakuñi dira ta oien artean Azpeitiko Udalarena, esanik, Etxegarai euskaltzain aukeratuaren sañerako al dan guzia gertuko duela.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

### **Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Epailaren 27'an.**

Batzaraldi ontara euskaltzain abek datoz: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Altube, Eguskitza, Lakonbe ta Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Euskaltzainburu jaunak iragartzen die beste euskaltzainai gure urgazle dan Kosme Elgezabal jaunak alegin egiten duela Durangon ango aberatsak berotzen, zerbaiten sorospide Euskaltzaindiari eman dezaioten. 300 peseta sorospidetzat etofi zaizkio Elgezabal jaun oren bitartez.

2. Badakite euskaltzainak Amerikara ezkutitz asko biali zirala, ango euskal-aberatsak ere, gai ontan, zerbait zuzpeltu naiez. Sanperio jaunak igoritako izen-leñoz zuzendu dira eskutitz oiek.